

Poliziak jipoitutako lagun beltzaren kasuak sesioa eragin du EEBBetan

«Aspaldian ez dut halako astindurik eman» esan zuen txantxetan polizia batek

EEBBetako poliziak hiritar beltz bati emandako jipoiak bazter guztiak astindu ditu. Bertako giza erakundeek Daryl Gates Los Angeles-eko polizia buruaren dimisioa eskatu dute. George Bush lehendakari estatubatuarrak «ekintza nazkagarria» izan dela adierazi du.

JOSE MARI PASTOR / DONOSTIA

Gertaera martxoaren 3an izan zen eta biharamunean 'heroiena' egin zuten polizia zuriak harro harro zebiltzan oraindik konputagailuen bidez mezuak elkarri bidaliz. 'Herald Tribune' egunkariak idazkiak argitaratu ditu. «Txo, aspaldian ez dut halako astindurik eman. Hori gozamen!» esan omen zion polizia zuri batek beste kide bati. «Lastima da. Seguru sugandila horrek ez zuena hainbestekorik merezi izan» erantzun honexek maltzur.

Baina hiritar beltz honi emandako pasadak segituan izan du oihartzunik. Inguruan bideozale bat ibili eta paliza grabatzen hasi zen. Ondoko egunetan Iparramerikako telebista kate guztietan izan zen ikusgai astinketa.

Rodney Gleen King 25 urteko 'sugandila' beltzak eskerrak eman beharko lizkieke komunikabideei, sikera baten izanda ere erregabetsuna kolore ilunkarari lotu izanagatik. Telebista emanaldiek bere alde jarri dituzte biztanlego eta agintariak. Lehenengoek Gates erantzuleztat jo, eta beronen dimisioa eskatu dute. Ez dirudien arren erraza izango denik.

Erukia Etxe Zurira ere ailegatu da. Bush lehendakariak «ekintza nazkagarria» izan dela eman du adi-



Drogaren aurkako polizia 'hispano' batzuk atxilotzen Miamin.

tzera. «Gaisotu egin naiz holakoak ikusiz» esan du. Baina mandatariak ez ditu gauzak beren onetik atera nahi izan: «Gates-ek lan fina egin izan du Los Angelesen droga eta gaizkileen kontra. Ikerketa egin beharko da lehenik». Polizia buruaren lan bikainak laguntza ederra eskaini zion Californian Bushi 1988ko hauteskundeetan.

MILIOIKA DOLARRETAKO INDEMNIZAZIOA King-en familiak bestelako eritzia du eta akusazio partikularren bidez 56 milioi dolar exigitu ditu indemniza-

zio gisa. Zenbakia borobila ez bada ere, badu oinarri matematikorik, poliziak 56 kolpe jo bait zizkion gizon honi. Kolpe bakoitzeko milioi bat dolar. Inoiz inon eman den astindurik garestiena, seguruenik.

King gizarajoak ez du aise ahaztuko martxoaren 3ko gaua. Langabetua eta lapurretatik gartzelan sei hilabete eman berria, Los Angeleseko kaleetan barrena zihuan kotxean, «azkar» joan ere. Poliziak geldieraztekoa egin eta hortxe hasi ziren komediak.

Bidaiariaren 'historiala' ez zen makala eta King beltza zen, gainera.

Agenteez ez zuten denbora txortxorean galdu nahi nonbait, eta hitzetik ekintzara pasatu ziren berehala. Ondorioak ezin latzagoak: aurpegia odoletan, begiak umeldu eta urratuta, eta buruan hainbat zaurirekin eraman zuten ospitalera King.

Txarrenak txarren, zortea izan zuen. Liskarraren beroaz poliziari 'ahaztu' egin zitzaion isuna jartzea. «Ikusten?» esan bide dio bere kideari martxoaren 4an txantxetan ibili zen polizia zuriak, «kotxean galapan joan, isunik paga ez eta gainera milioitan ito nahi du morroiak. Nigger hauek badakite negoziotan gero!».

Major-i zentsura mozioa Poll Tax-a dela eta

LONDRES

John Major-en Gobernuak aurre egin beharko dio agintean dagoenetik jarri dioten lehen zentsura mozioari *Poll Tax* zergaren auzia dela eta. *Poll Tax-a* ezabatzea erabaki zuela iragarri eta gero, Neil Kinnock oposizio laboristako buruak zentsura mozioa aurkeztu du, zergaren kontu horretan atzera egitea «historia politiko britainiarrean izandako kapitulazio handiena» izan dela eta.

Zentsura mozioa datorren asteazkenean eztabaidatuko da. Majorrek ez du galtzeko beldurrik, baina entzun beharko dituen sekulakoak izango dira. Zerga ezabatzeak erabakiak polemika zabaldu du Alderdi Kontserbatzailean bertan, baina Gobernuak Majorren alde egingo du, aurkako hitzerdirik onartzeke.

Analisten eritziz, *Poll Tax-a* ezabatzearen erabakia elektoralista izan da, hauteskundeetara begira egin. John Majorrek popularitate handia lortu zuen gerrari eskerrak, baina laboristak oraindik aurretik ageri zitzaizkion. Hori dela eta, maiatzean izan beharko diren udal hauteskundeetan Alderdi Kontserbadoreak galdu egin dezakeela da *tory-en* beldurra. Bost tokitako bozketan lokaletan galdu egin dute *tory-ek*.

Poll Tax-a Margaret Thatcher aurreko lehen ministroak ezarritako zerga da. Udaletako finantzamendua berrantolatzeko modu bat da *Poll Tax-a*, eta kalkulu erraza dauka: udal aurrekontua udaleko bizilagunen artean zatitzen da eta berdin ordaintzen dute denek. *Poll Tax-aren* ordezeko sistema, jabeagoen balioa izango da zergaren kopurua zehaztuko duen neurria.

Kroaziak diru gutxiago emango dio Jugoslaviako gobernuari

DONOSTIA

Kroaziako errepublikak murriztu egingo du Jugoslavia-ko Armada eta beste erakunde batzuen finantzatzeko ematen duen diru kopurua, harik eta estatu honen etorkizuna behin betiko erabakiko den arte.

Eslovenia-k ere antzera egin zuen lehenago, 1991ko aurrekontuarentzat Gobernu federalaren eskuetan utzi behar zuen dirutza gutxiagotuz. Errepublika honek bezala, Kroaziak 'aurretu' egingo du sosa autonomia eta subirotasuna indartzeko.

Bai Esloveniak bai Kroaziak estatu subirano anizdun egitura bihurtu nahi dute egungo Jugos-

lavia. Ente berriaren estatu bakoitzak moneta eta armada izateko eskubidea edukiko luke.

Iaz gordetako diruaz Kroaziak 10.000 bat 'Kalasnikov' eskupeta erosi zituen errepublikako poliziei banatzeko. Geroan baliteke neurri berberak hartzea armada osatzeko orduan.

Jugoslaviak zor dexentea du militarrekin, errepublika zenbaiten diru gabe arazoak eduki bait ditu behar beste dirurik biltzeko. Armadak agiri bat kaleratu zuen honen berri emateko. Erakunde militarrek Konstituzioari eutsi eta istilu armatuen kontra egingo duela esan zuen, baina «erakunde honi dagokiona» emateko aholkatu zion gobernuari.

Aliatuentzako dirulaguntza berriro negoziatu nahi du Bonn-eko Gobernuak

DONOSTIA

Golkoko gerra zela eta Estatu Batuei agindutako dirulaguntzak berriro negoziatu nahi ditu Alemaniako gobernuak. Alemaniak ez zuen troparik bidali nazioarteko indarrera, baina aliatuei finantz laguntza handiak agindu zizkien. Guztira, 11.000 milioi dolarreko laguntza agindu zien Estatu Batuei eta bere aliatuei Bonn-eko Gobernuak.

Baina Eki Alemania zeneko krisi ekonomikoaren larritasunak, Golkoko prestatuta zegoen dirutza murriztearen beharra ekarri du mahaira. Alderdi sozialdemokratik berriro negoziatzeko eskatu dio gobernuari. Washington-ek ezagutzera emandako datuen arabera, «Kuwait

✓ SPDkoen eritziz, gerrarako dirutza Alemaniaren batasun prozesua ordaintzeko erabili beharko litzateke.

askatzeko operazioa» 42.000 milioi dolar kosta zen. SPDk salatu duenez, beste estatu batzuen artean 60.000 milioi dolar inguru agindu dizkiote EEBBei, beraz, ez da beharrezkoa Alemaniak bere faktura ordaintzea.

Sozialdemokraten eritziz, laguntza hauek bi Alemanien batasunaren prozesuaren «zuloa» estaltzeko erabili beharko lirateke, «ez Estatu Ba-

tuen plusbalioa handitzeko», Wolfgang Roth SPDko buruzagiak esan duen bezala. Izan ere, Helmut Kohlen Gobernuak batasun prozesua finantzatzeko zerga berriak ezarri nahi ditu, 12.000 milioi dolar gehiago batzeko, hau da, ia Golkoarengatik ordaindu beharreko kopurua.

Aurrekontu federalean 35.000 milioi dolarreko «eragina» suposatu du Alemaniako batasunak, eta 1991rako defizit aurrikuspene izugarria da: 48.000 milioi dolar, ia gutzia batasunaren ondorioz. Ekonomista alemanen eritziz, egoera txarrerantz doa. Alemania nazio zorduna da eta 690.000 milioi dolarreko kanpo zorra izan dezake laister, Peter Blume Alemaniako Merkatal Ganbarako eledunak kalkulatu duenez.